


EUSKAL AEko ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA (EKI), 2010eko MAIATZA

Euskal AEko eraikuntzaren kostuak %0,4 igo ziren 2010eko maiatzean aurreko hilaren aldean

Azken hamabi hilabeteetan (2010eko maiatza, 2009koarekin alderatuta) eraikuntzaren kostuak %1,7 gehitu dira

2010eko maiatzean, Euskal AEko Eraikuntzaren Kostuen Indizea %0,4 igo zen, aurreko hilaren aldean, eta urte arteko tasa %1,7, EUSTATen datuen arabera.

Abenduko urte arteko aldakuntza-tasak, 1997-2010



(*) Gehikuntza maiatzako urte artekoa da
Iturria: EUSTAT. Euskal AEko eraikuntzaren Kostuen Indizea

2010eko maiatzean, lan-eskuaren kostua ez da aldatu (%0,0); lehengaien kostuak, berriz, %0,5 igo dira.

Maiatzean Etxegintza eta Obra Zibila azpisektoreek goranzko bilakaera izan zuten lehengaien kostuari dagokionez. Etxegintzan %0,6ko igoera aurreko hilaren aldean, eta Obra Zibilaren atalean %0,3 igo ziren. Bi azpisektore hauen urte arteko bilakaerak intentsitate ezberdinak erakusten ditu. Etxegintzako lehengaien kostuak %1,0 hazi dira eta Obra Zibilekoenak %5,6.

Sektorean kontsumitu diren lehengaien prezioari dagokionez, azken hamabi hilabeteetan inflazio-tasa handienak izan dituztenen artean Petrolio-fintzea (%32,7) nabarmentzen da. Ondoko sektoreetan ere igo dira prezioak: Metalurgia (%10,0), Material elektrikoa (%2,2), Ez-metalezko industria (%2,1), Kautxu eta plastikoa (%1,4) eta Industria Kimikoa (%1,1) besteren artean. Berriz, urteko prezioetan (2010eko maiatza 2009koaren aldean) jaitsierak izan dituzte ondoko sektoreetako lehengaiak: Zurgintza (%-2,5), Energia elektrikoa eta gasa (%-1,5), Metalezko artikulak (%-1,3) eta Altzarigintza (%-0,4), besteren artean.

ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA. EUSKAL AE / DATU AURRERAPENA. 2010EKO MAIATZA

GOIBURUAK	INDIZEA 2005 = 100 Oinarria	GEHIKUNTZAREN %		
		Aurreko hilaren aldean	Aurreko urteko hil beraren aldean	Aurreko abenduaren aldean
KOSTUA GUZTIRA	118,4	0,4	1,7	1,9
ERAIKINAK	118,1	0,5	1,1	1,6
OBRA ZIBILA	119,8	0,2	4,4	3,3
LEHENGAIEN KOSTUA	117,7	0,5	1,9	2,1
ERAIKINAK	117,3	0,6	1,0	1,6
OBRA ZIBILA	119,4	0,3	5,6	4,1
LAN-ESKUAREN KOSTUA	121,1	0,0	1,4	1,4

Iturria: EUSTAT. Euskal Aeko eraikuntzaren kostuen indizea

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel:+34-945-01 75 00 Faxa:+34-945-01 75 01 Posta elektronik.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel:+34-945-01 75 06 Faxa:+34-945-01 75 01

Eraikuntzako Kostuen Indizeari buruzko prentsa-ohar gehiago

Eraikuntzako Kostuen Indizeari buruzko datu-bankua